

IKD i³ Laborategia ERRIKUNTZA PROIEKTUEN DEIALDIA 2021-22 aldirako

1. DEIALDIAREN JUSTIFIKAZIOA

UPV/EHUK bere hezkuntza eredua onartu zuen, IKD izenekoa¹, 2010ean, Europak martxan jarri zuenean goi mailako hezkuntza politika bateratua. Orduz geroztik, hainbat erakunde programa sortu ditu metodologia aktiboak eta berritzaileak sustatzeko, hezkuntza berrikuntzarako taldeei (oinarrizkoak eta aurreratuak) laguntzeko, bere irakasleen garapena bultzatzeko, irakats lana ebaluatzeko eta bere ikastegiak nahiz tituluak akreditatzeko. Horretarako sortu dira kudeaketa tresnak eta laguntza eta orientazio materialak, eta ahalegin handia egin da hori dena batera eraikitzeko.

Hamar urte geroago, aldatu egin dira bai unibertsitatearen dinamika bera bai kanpoko testuingurua. Erreferentzia esparru garrantzitsuak agertu dira: hala nola Nazio Batuen 2030 Agenda, Garapen Iraunkorrerako 17 helburu (GIH) eta 169 xede ezartzen dituen², edo Europar Batasunaren Goi Mailako Hezkuntzarako Agenda Berritua³, honako desafio hauek nabarmentzen dituena:

1. *Aurre egitea gaitasunen garapenean dauden arrakalei eta, batez ere, konplexuagoak direnetan sakontzea: ikustea nola egin diezaiokeen ekarpena ikerketak irakaskuntzari –graduak eta graduondokoa–, edo gaitasun konplexuak garatzea mundu aldakor baten ezaugarri den erresilientziarako.*
2. *Goi mailako hezkuntza sistemak sortzea, integratzaileak eta konektatuak, aurre egiteko gero eta handiagoak diren gizarte desberdintasunei: sistema horietan sartzeko sozioekonomikoki desabantailak dituzten kolektiboak, migratzaileak, hiriak eta eskualdeak garatzea, eztabaida publikoa giza eskubideei eta gizarte gaiei buruz...*
3. *Goi mailako hezkuntza erakundeek berrikuntza bultzatzea dezaten bermatzea: titulazioen garrantzia indartzea enplegarritasunari begira, aurrerapen zientifikoen transferentzia handitzea, doktorego programak fokalizatzea enplegu sektorearekin elkarrekintzan.*

Hori horrela, UPV/EHUK lan ildo berriak definitu ditu **UPV/EHUREN 2018-2021 Plan Estrategikoan**⁴ eta **garapen iraunkorrerako 2030 EHUagendan**⁵. Gainera, **UPV/EHUREN ZEHARKAKO GAITASUNEN KATALOGOA** (2019)⁶ argitaratu da, zortzi gaitasun definitzen dituena UPV/EHUREN titulu guztientzat:

¹ <https://www.ehu.es/es/web/sae-helaz/ikd>

² <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

³ <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/PDF/?uri=CELEX:52017DC0247&from=DA>

⁴ <https://www.ehu.es/documents/1769324/0/estrat%C3%A9gico+plan+2018-21/fe8c220e-25be-0097-49ce-70e0b18305b9>

⁵ <https://www.ehu.es/es/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>

⁶ https://www.ehu.es/documents/1432750/12757375/Cat%C3%A1logo+de+Competencias+transversales_cas.pdf/5dd00732-9e32-5e52-0ee2-2128d9a6867b

- Autonomia eta autoerregulazioa
- Gizarte konpromisoa
- Komunikazioa eta eleaniztasuna
- Etika eta erantzukizun profesionala
- Informazioaren kudeaketa eta herritartasun digitala
- Berrikuntza eta ekintzaitza
- Pentsamendu kritikoa
- Talde lana

Analisi eta kontraste lan horrek, eta jadanik aipatutako premisek, UPV/EHUren hezkuntza eredu berrirakurtzera eraman gaituzte. Emaizta IKD i³ estrategia da ("i ber hiru": **ikaskuntza x ikerketa x iraunkortasuna**), ikaskuntzaren, ikerketaren eta iraunkortasunaren arteko konbinazioaren gaitasun biderkatzailea adierazteko modu sinbolikoa.

IKD i³ strategiaren xedea da hezkuntza berrikuntzaren hazkunde esponentziala lortzea tituluetan, inpaktu handiko curriculum prozesu eta produktu ineditoak ahalbidetuko dituen, Zeharkako Gaitasunen Katalogoko gaitasun konplexuak garatzeko, ikerketa irakaskuntzan txertatzeko eta garapen iraunkorrerako helburuak lortzeko bere ekarpena egiteko, EHU Agenda 2030eko hiru sektore-plangintzetako edozeinetan: Berdintasuna Campusa, Inklusio Campusa eta Planeta Campusa.

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE-HELAZ) bidez, berriro dei egiten die UPV/EHUko irakasle-ikertzaileei aktiboki parte har dezaten IKD i³ strategiaren garapenean, IKD i³ Laborategia Berrikuntza Proiektuen bigarren deialdia plazaratuz, irakasle taldeak aktibatzen. Talde horien eginkizuna izango da iraunkortasun erronkak tituluetan txertatzeko lanak zuzentzea, irakaskuntza-ikaskuntza estrategia aktibo eta kooperatiboen bidez, ikerketan oinarritutakoak, halako moldez, non egungo munduan etikoki eta eraginkorki aritzeko behar diren gaitasun konplexuak garatuko diren.

2. DEIALDIAREN HELBURUAK

Honako hauek dira, zehazki, deialdi honen helburuak:

- Bultzada ematea IKD i³ berrikuntza egitasmoak eta ibilbideak UPV/EHUren tituluetan txertatzeari.
- Irakasle taldeek berrikuntzarako duten gaitasuna indartzea, martxan jar ditzaten tituluetan egoki integratuko diren proiektu berriak.
- Sinergiak sortzea irakasle taldeen artean, ikastegien tituluen barnean edo ikastegien artean, helburua izanik ibilbide egokiak sortzea gaitasun konplexuak garatzeko eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekiko konpromisoa betetzeko.
- IKD i³ hezkuntza berrikuntzaren emaitzak zabaltzea irakaskuntzaren ikuspegi akademiko batetik (SoTL)⁷.

3. IKD i³ Laborategia BERRIKUNTZA PROIEKTU MOTAK

Proiektu proposamenak egingo dira tituluaren ikuspegi global batetik, halako moldez, non denborarekin ibilbide bat sortuz joango den, GIHak eta gaitasun konplexuen

⁷ <https://www.ehu.es/es/web/eurosotl-2019/home>

garapena barne hartuko dituen, orain arte inplementatutakoak bezalako metodologia berritzaileen bitartez (Kasu metodoa, Problemetan oinarritutako ikaskuntza eta Proiektu eta ikaskuntza kooperatiboak) eta metodologia berriak erabilia: Indagazioan/Araketan edo Ikerketan oinarritutako ikaskuntzak ([Inquiry Based Learning-IBL](#) edo [Research Based Learning-RBL](#), hurrenez hurren).

Kontua da puntualki eta bakartuta egiten den irakaskuntza berrikuntza gainditzea, eta berrikuntza estrategiko bat sortzea, helburu zehatz eta adostuak izango dituen eta **egingarria** izango dena, ekintzei nahiz erabili beharreko baliabideei dagokienez, koordinatua eta denboran mailakatua, epe ertain eta luzera ikasleen ikaskuntza hobekuntza ebaluatzeko modua emango duena.

Ikastegiaren Kalitate Batzordeek –edo, hala badagokio, Titulazio Batzordeek– zeregin garrantzitsua dute testuinguru honetan titulu bakoitzari ezartzen zaizkion helburuak definitzeko orduan. Helburu horiek hainbat mailatan bete ahal izango dira, deialdian parte hartuko duten proiektuetan planteatutako **irismen** eta inplikazio motaren arabera.

Aipaturiko titulazioaren ikuspegi globala eskatzearen helburua zera da, ikastegietako eta titulazioetako berrikuntza-taldeen koordinazioa sustatzea. Izan ere, deialdi honek titulazio bakoitzean ibilbide kurrikular bakar bat eratzea bultzatu nahi du, ibilbide hori egikartzeko aproposak diren proiektu guztiak barne hartuko lituzkeena, proiektuen koordinatzaileak eta titulazioaren koordinatzailea batzen dituen zuzendaritza elkartu baten pean.

Elementu horien arabera, hainbat prototipo aurkezten dira, orientazio modura, proposamenen aukerak mugatzeko helbururik gabe; aitzitik, laguntza modura planteatzen dira praktikan jarduteko modu zehatz gisa (1. taula).

1. taula. Proiektuen aplikazio eremuen eta inplikazio moten prototipo orientagarriak:

1. prototipoa: EREIN

Proiektu hauen helburua da curriculumean txertatzea Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) batekin edo gehiagorekin lotutako gaiak, lehenengo ikasturteetako irakasgaietan ondo definitutako helburua(k). Irakaskuntza metodologiak aktiboak eta aldaketa-eragileak izango dira, hau da, ikasleen pentsatzeko eta sentitzeko moduak aldaraziko dituztenak, eta zeharkako gaitasun bat edo gehiago garatuko dituzte.

Proiektuak oinarritzkoak edo sarrerakoak izango dira, eta curriculum ibilbide baten abiapuntua izan daitezke. Proposamen inedito eta original baten garapena izan daiteke, edo jada existitzen diren beste batzuen txertaketan oinarritu (oinarritzko on-line ikastaroak⁸ <https://www.ehu.eus/eu/web/sae-helaz/ikd-i3-berrikuntza-laborategiaren-proiektuak/katalogoa>), irakasgaiaren irakaskuntza taldeak egokitua eta kudeatua (aldez aurreko prestakuntza izango du horretarako). Lehenetsuna izango dute irakasgaiaren irakaskuntza talde guztietan gauzatu diren proposamenek (beraz, haren irakaskuntza gidan agertuko dira).

2. prototipoa: ERNATU

⁸ Berdintasunari, garapenerako lankidetzari edo ingurumen kudeaketari lotutako on-line ikastaroak dira, orain arte curriculumetik kanpo eskaini direnak eta irakasgai jakin baten barruan moldatu daitezkeenak.

Proiektu hauen helburua da GIH bat edo gehiago txertatzea aldaketa metodologiko berritzaileen bidez ikaskuntza testuinguru konplexuagoetan, zeharkako gaitasun bat edo gehiago garatzeko.

Kontua da IKD i³ orientazioa inplementatzea gutxienez irakasgai baten kredituen % 30ean, adibidez [IBL edo RBL](#) metodologia aplikatuz, garapen iraunkorrarekin lotutako erronka baten inguruan. Prototipo honetan sartu ahal izango dira elkarren artean oso erlazio estua duten irakasgai batean edo batzuetan, ekintza berdintsu edo koordinatuak ezartzera doazenak, nahiz eta titulazio desberdinetakoak izan, beti ere, ikasleen eta irakasleen arteko harremanak erraztera bideratuta badoaz. Lehentasuna izango dute irakasgaiaren edo irakasgaien irakaskuntza talde guztietan gauzatuko diren proposamenek (beraz, haren/haiei irakaskuntza gidan agertuko dira).

3. prototipoa: LORATU

Proiektu hauen helburua da ikerketari lotutako gaitasun konplexuen garapena finkatzea, denboran mailakatutako ibilbide ezaguterraz baten bidez, GIHei erlaxionatutako erronken inguruan.

Kasu honetan, irakaskuntza taldeek IKD i³ berrikuntza bat planteatuko dute, irakasgaien sekuentzia batean, eta gutxienez hiru i³ ikaskuntza egoera sartuko dituzte tituluaren zehar. Lehentasuna izango dute irakasgaien irakaskuntza talde guztietan gauzatuko diren proposamenek (beraz, dagozkion irakaskuntza gidetan agertuko dira).

Taldeek egoera aztertuko dute aurretik eta curriculum ibilbidea definituko dute. Mota honetako proiektu bakar bat finantzatuko da titulu bakoitzeko. Taldean, tituluaren koordinatzaileak parte hartuko du; bestela, ikastegiaren Kalitate Batzordearen edo Titulazio Batzordearen konpromisoa izango du proposamenaren garapenean laguntzeko.

4. prototipoa: UZTATU

Proiektu hauen helburua da GIH baten edo gehiagoren curriculum txertaketa erabatekoa eta zeharkako gaitasun baten edo gehiagoren garapen maila handi bat berrestea, gradu edo masterraren azken etapan.

Irakaskuntza taldeek sustatuko dituzte Praktika Kurrikularrak (PK), Gradu Amaierako Lanak (GRAL) edo Master Amaierako Lanak (MAL), proiektuaren xede diren GIHei lotutako erronkei orientatuak, eta irtenbideak proposatuko dizkiete era uni-, multi- edo trans-diziplinarrean, RBL/IBL ikuspegiaz. Zenbat irakasle izango dituen taldeak, hainbat GRAL/MAL/PK barne hartuko dituzte gutxienez. Eginiko GRALak eta MALak UPV/EHUren Ikasleen Batzarrean aurkeztuko dira: [Gure Gradu Amaierako Lanek \(GrAL\) mundua aldatzeko balio dute.](#)

IKD i³ Laborategia berrikuntza proiektuen ikuspegia UPV/EHU berria denez, deialdiaren beraren inguruko informazio guztia, bertan parte har dezaketen proiektuen adibide batzuk, terminoen glosarioa, GIHei eta bere txertaketa curricularrarekin zerikusia duten ikastaroen katalogo bat barne, <https://www.ehu.eus/eu/web/sae-helaz/ikd-i3-berrikuntza-laborategiaren-proiektuak>, webgunean eskuragarri dago. Halaber, komunikazio kanal bat zabaldu da kontsultak egiteko eta zalantzak argitzeko saioak antolatuta dira azaroaren 24ean BBC plataforman (<https://eu.bbcollab.com/guest/05eb020bd53a439da321b42c5096ea32>).

4. IKD i³ BERRIKUNTZA TALDEEK ETA HAIEN PROPOSAMENEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Talde guztiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Taldeetan arituko dira gutxienez proiektuei lotutako irakasgaien irakasleen bi heren. Beste kolektibo batzuetako kideek ere parte hartu ahal izango dute (ikasleak, AZPko langileak, kanpoko profesionalak, beste unibertsitate batzuetako edo hezkuntza maila batzuetako irakasleak, etab.).
- Taldearen koordinatzaileak irakasle kontratatua izan beharko du, unibertsitatearekiko lotura bermatzeko proiektuaren iraupena baino txikiagoa izango ez den denboraz. Gainera, pertsona hori DOCENTIAZ programan parte hartutakoa izango da, 60 puntuko edo hortik gorako ebaluazioa lortuta.
- Ahal bada, taldeen osaera parekidea izango da gizon-emakume kopuruei dagokienez. Hori ezinezkoa denean, baldintza ez betetzeko arrazoia azaldu beharko da.
- Pertsona batek ezin izango du deialdiaren eskaera batean baino gehiagotan parte hartu.

Kontuan izango da eskaerak deialdiaren prototiporen batekin bat datozen, nahiz eta beste era bateko proposamenak ere baloratuko diren, egoki justifikatuz gero. Proposamenek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Deialdian parte hartu nahi duten proiektu guztiek ekarpen bat egin behar diote gure unibertsitatearen hezkuntza berrikuntzari, helburua izanik eragin positibo eta ebaluagarri batzuk izatea ikasleen ikaskuntzan. Zehazki, GIH baten edo gehiagoren curriculum txertaketa proposatuko dute, zeharkako gaitasun konplexuen garapena ahalbidetuko duten metodologia berritzaileen bidez.
- Deialdira aurkeztutako proposamenek honako hauek aurkeztuko dituzte: berrikuntza xedearen definizioa eta haren aplikazio eremua, exekuzio plan bat, eta inplementazioaren emaitzak bildu eta aztertze mekanismoaren deskribapena.
- Proiektu guztiak bat etorriko dira SoTL orientazioarekin; hau da, ikerketan eta esperimintazioan kontrastatua oinarritutako irakaskuntza garatuko dute, abiapuntu harturik bibliografia zientifikoak arlo horri egiten dizkion ekarpenak, ebidentzia empirikoa sortuz, emaitzak sistematizatuz eta emaitza horiek ingurune akademikoetan zabalduz (aztergai den diziplina/tematikaren irakaskuntzaren arloan garrantzitsuak diren batzar eta jardunaldi zientifikoak, edo parekoen berrikusketa irizpide duten aldizkari garrantzitsuetan argitaratzea).

5. ESKAERAK IZAPIDETZEA

Proiektuek UPV/EHUko irakasleen sostengua izango dute. Taldeko kide batek bere gain hartuko ditu taldearen koordinazio lanak, eta arduradun eta solaskide gisa arituko da Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekiko harremanetan.

Eskaera 1. ERANSKINeko ereduaren bidez egingo da eta eskatzen diren datu guztiak eman beharko dira. Inprimakia deialdiaren webgunean eskura daiteke (1. ERANSKINA, <https://www.ehu.es/es/web/sae-helaz/ikd-i3-laborategia-proiektuak>). Eskaera bete eta bidali ondoren, bidali izana egiaztatzen duen mezu elektronikoa jasoko da. Eskatzaileek beren zalantzak kontsulatu edo galderak egin ahal izango dituzte (ikdi3proiektuak@ehu.es)

Eskaerak aurkezteko, **30 egun natural** izango dira, deialdia Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzaren web orrian eta campus errektoreordetzen iragarki elektronikoen tauletan (ehutaula) argitaratzen den egunetik kontatzen hasita (bat etorriko dira argitalpen data eta deialdiaren sinadura data).

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez hamar egun natural igarota, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak eskaeren zerrenda argitaratuko du (ondo betetako eskaerak eta datuak faltan dituztenak) bere web orrian eta campus errektoreordetzen iragarki elektronikoen tauletan (ehutaula). Eskatzaileek hamar egun natural izango dituzte, zerrenda argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, dokumentazioa osatzeko. Epe horretan falta den dokumentazioa aurkezten ez duten eskaerak bertan behera geldituko dira.

6. EBALUAZIO PROZESUA ETA EBAZPENA

Lehiaketan onartutako proposamenak sailkatu eta ebaluatu egingo dira (zeregin horretarako sortuko diren batzordeak arduratuko dira horretaz). Titulu bati lotutako proposamen bat baino gehiago badago, dagozkion Kalitate Batzordeak eta Titulazio Batzordeak kontsultatu ahal izango dira proposamenaren egokitasunaz, eta alde guztiak bildu ahal izango dira, bategiteak eta sinergiak bilatzeko taldeen artean eta, ahal bada, tituluari lotutako IKD i³ ibilbide bat eratzeko.

Ebaluazio Batzordeak balorazio txosten bat egingo du, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak kontuan hartuko duena laguntzak jasoko dituzten proiektuak hautatzeko orduan, baita laguntzen kopuruak zehaztean ere.

Laguntzak jasoko dituzten proiektuak aukeratzean, aintzat hartuko dira 1-5 irizpideetan (3. taula) lortutako balorazioak, erabilgarri dagoen aurrekontua eta proiektuaren egokitasuna tituluen eta ikastegiaren beharren arabera. Gainera, ahaleginak egingo dira IKD i³ proiektuak UPV/EHUren ikastegi eta tituluen artean banatzeko.

3. taula: IKD i³ proposamenak baloratzeko irizpideak

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak gehien jota
1	Proiektuaren justifikazioa, helburuak: aintzat hartzen duen GIH, garatzen duen zeharkako gaitasuna(k), irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan egingo dituen hobekuntzak.	20
2	Proiektuaren irismena: irakasgaiak, modulu/diziplinak, tituluak (taldeak bere gain har ditzakeen irakaskuntza taldeak) eta proiektuan birdiseinatuko diren curriculumaren ECTS kredituen kopurua.	10
3	Proiektua garatzeko proposamena: metodologiaren egokitasuna jadanik argitaratutako ebidentzian oinarrituta (literaturaren erreferentziak eman beharko dira), proposatutako ekintzek helburuekin duten koherentzia (deskribapena erantsiz), eta exekuzio plana, ekintzen eta arduradunen kronogramarekin.	30

4	Proiektuaren inplementazioaren ebaluazioa diseinatzea: proiektuaren emaitzak ebaluatzeko aukeratu diren adierazleen egokitasuna, informazioa biltzeko mekanismoa eta emaitzak aztertzekeo prozedurak.	25
5	Taldearen ezaugarriak: aldez aurreko prestakuntza edo esperientzia, bakarkakoa edo taldekakoa, GIH garapenean, hezkuntza berrikuntzan eta gaitasunetan, eta tituluaren edo ikastegian duten ordezkartza-maila.	15

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak erabakiko du zer proposamen lagundu, eta gehienez **hiru hilabete** izango du erabakia jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

Erabakiaren kontra berraztertzekeo errekurtsioa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, aipatu erabakiaren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

7. PROIEKTUEN GARAPENA ETA JARRAIPENA

Diruz lagundutako proiektu bakoitzak aholkulari bat izango du, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak izendatua, proiektua garatzen laguntzeko eginkizuna izango duena. Kalitate Batzordeei eta Titulazio Batzordeei, beren ikastegi eta tituluaren garatzen ari diren IKD i³ proiektuen berri emango zaie puntualki.


Proiektuaren fase bakoitza amaitzean, mugarri edo emaitza bat aurkeztuko zaie aholkulariari eta dagokion Kalitate edo Titulazio Batzordeari.

Proiektuek, hainbat fase izango dituzte, 1 Irudian grafikoki adierazten den eskemari eta ondoren azaltzen denari jarraituz:

- (1) Curriculum txertaketako ekintzak **diseinatu eta planifikatzeko fasea**. Fase amaieran, IKD i³ irakaskuntza gidak idatziko dira; proiektuen lehenengo mugarria izango dira (1M).
- (2) **Inplementazio fasea**. Diseinuak praktikan jarriko dira eta jarraipen txosten bat egingo da ebidentziak bilduta. Txosten hori aholkulariari aurkeztuko zaio. Bigarren mugarria izango da (2M).
- (3) Inplementazioaren **emaitzak aztertzekeo fasea**. Hirugarren mugarria izango da (3M) eta aholkulariari eta Kalitate edo Titulazio Batzordeari aurkeztuko zaio.
- (4) **Hedapen fasea**. Emaitza positiboak izan dituzten proiektuek laguntza jasoko dute beren hedapenerako: barnean (titulua, ikastegia eta UPV/EHU) eta kanpoan (gaiarekin eta hezkuntzarekin lotura duten batzarrak eta argitalpen zientifikoak).

Proiektuen iraupena haien ezaugarrien arabera izango da: 18 hilabetekoa gutxienez (epe horretan 1., 2. eta 3. faseak garatuko dira gutxienez) eta 24 hilabetekoa gehienez (hedapen fasea barne).

Hasieratik titulu batean ibilbide bat zehaztuta duten proiektuak (3. prototipoa, LORATU) denboran luzatu ahal izango dira, hedapen osoa lortu arte, nahiz eta emaitzak aztertzekeo fase bakoitzaren amaieran ebaluatuko diren, ekintza berriak inplementatu ondoren.



1. irud.: IKD i³ proiektuen faseak: Diseinua, implementazioa, emaitzen bilketa eta azterketa, eta hedapena.

8. PUBLIZITATEA

3. atalean aipatutako hitzaldiez gainera (horien bidez informazioa emango zaie ikastegiei, IKD irakaskuntza talde egituratuari eta garapenerako lankidetzak, berdintasunari bultzada edo hezkuntza berrikuntzako proiektuak garatu dituzten pertsonari), honako bide hauek ere erabiliko dira deialdiaren zabalkunde egokia giteko:

- Argitalpena honako hauen webgunean: Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza (<https://www.ehu.es/es/web/berrikuntza-gizarte-konpromiso-eta-kulturgintza-errektoreordetza/home>), Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua (SAE-HELAZ), Iraunkortasun Zuzendaritza, Berdintasunerako Zuzendaritza eta eCampus.
- Argitalpena Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusen Errektoreordetzen iragarki elektronikoen tauletan (ehutaula).

9. BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA FINANTZAKETA

BALDINTZAK

IKD i³ proiektuen deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira helburu berbera duen beste edozein laguntzarekin.

Urteko aurrekontua zehazteko orduan, kontuan hartuko da Programa Kontratuari urte horretan esleitu zaion kopurua.

Dirulaguntza eskaera behar bezala justifikatuko da urte natural bakoitzerako planifikatutako ekintzen kostuaren arabera. 1., 2. y 4. prototipoetako proiektuek ez dute 1.500 €-tik gorako laguntzarik jasoko, eta 3. prototipokoek ez dute 3.000 €-tik gorako laguntzarik jasoko.

Dirulaguntzarekin ordainduko dira material suntsikorrak, proiekturako prestakuntza espezifikoa, ikasleekin eginiko jarduerak eta egitasmoak, software lizentziak, proiektua koordinatzeko bileren gastuak, emaitzen aurkezpena batzarretan eta beste dirulaguntzarik ez duten unibertsitate irakaskuntzari lotutako ekitaldietan, eta emaitzen argitalpena. Ezin izango da inola ere dirulaguntza erabili beste unibertsitate

batzuetako lagunen dietak ordaintzeko, nahiz eta taldeko kideak izan (beren unibertsitateen laguntza izan beharko dute).

Deialdiak ez du finantzatuko azpiegitura eskaerarik (material inbentariagarria edo funts bibliografikoak). Behar horiek dituzten egitasmoek beste bide batzuk erabili beharko dituzte helburu horietarako.

10. LAGUNTZAK JASOKO DITUZTEN TALDEEN KONPROMISOAK

IKD i³ taldeek konpromisoa hartuko dute koordinazio bileretara joateko eta beren emaitzak UPV/EHUⁿ IKD i³ proiektuak ezagutarazteko egingo diren jardunaldietan aurkezteko.

Proiektuaren koordinatzaileak lantaldearen funtzionamendu egokia bermatuko du. Hala, idatziz eskatuko zaizkio Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuari proiektuaren garapenean gerta litezkeen taldekideen altak eta bajak, eta zerbitzu hori arduratuko da eskaerak ebazteaz eta kasu bakoitzean dagokion akreditazioa gauzatzeaz. Gainera, koordinatzailea (edo haren ordeztatutako pertsona) arduratuko da jarraipena egiteaz, eta proiektuaren garapenaren berri emateaz, eskatuko zaion moduan.

Taldearen koordinatzailea arduratuko da ere kontabilitate kudeaketaz. Taldeek konpromisoa hartuko dute UPV/EHUren kontabilitate eta gastu kudeaketaren arauak betetzeko:

- Fakturak UPV/EHUren kontabilitate arauak beteko dituzte.
- Material suntsikorrak unibertsitatearen enpresa adjudikaziodunei erosiko zaizkie eta fakturak martxo eta azaroa bitartean bidaliko dira.
- Bidaiak eta alojamenduak UPV/EHUren adjudikaziodunekin kontratatuko dira nahitaez. Ez da fakturarik eta dietarik ordainduko egiaztagiririk aurkezten ez bada.
- Faktura originalek proiektuaren koordinatzailearen OE izango dute. Behin fakturak izenpetuta, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzara bidaliko dira (dagokion pertsonari zuzenduak), fakturazioari dagokion urte naturalaren barnean eta azaroaren 30a baino lehen.

11. DIRULAGUNTZA ITZULTZEKO ARRAZIOIAK

Dirulaguntza emateko baldintzak bete ez direla egiaztatzen bada, jasotako kopuruak itzuli beharko zaizkio nahitaez UPV/EHUko Zerbitzu Nagusiari.

12. PROIEKTUEN ZIURTAPENA ETA HEDAPENA

Ziurtapena. IKD i³ proiektuetan aritu den irakasle bakoitzari, programaren eskakizunak betez gero, parte hartu izanaren egiaztagiria emango zaio, Ebaluazio Batzordeak amaierako txostena baloratu ondoren. UPV/EHUko kide ez diren taldekideek dagokion proiektuaren koordinatzaileen akreditazioa jasoko dute.

Proiektuen emaitzen hedapena. Behin mugarri guztiak aurkeztuta, Ebaluazio Batzordeak aztertu egingo du unibertsitateko kideentzat interesgarriak izan daitezkeen proiektuen emaitzak zabaltzeko aukera, egoki iritzitako baliabideen bitartez.

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak dirulaguntza jaso duen taldeari eskatu ahal izango dio prestakuntza, sentsibilizazio edo hedapen saioetan parte hartzeko. Gainera, UPV/EHUK proiektuak eta haien emaitzak erabili ahal izango ditu bere ekintzetan, sentsibilizazio kanpainetan eta urteko jardueren memorian.

AZKEN XEDAPENA

Deialdi hau araututa dago EAEko Ogasunaren Antolaketa eta Eraketa Legearen bidez, VI. tituluak jasotakoaren bidez bereziki, EAEko administrazio publikoaren laguntzen eta dirulaguntzen araubideari dagokionez.

Deialdia eta haren Oinarriak, eta erator litezkeen administrazio ekinbide guztiak, inpugnatu egin ahal izango dira urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio Ordenari buruzko Legeak ezarritakoaren arabera.

Leioa, 2020ko azaroaren 13a

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea

Idoia Fernández Fernández